

# Arrasate

P R E S S

1995eko  
ekainak 16  
281. zenb.

ELKARRIZKETA

**Jose Jaime Bengoa**

BERRIAK

**Alkate berriaren aukeraketa**



Mendiko txirrindua  
**Modako tresna**



# Arrasate Musikal

## DATORREN IKASTURTEAN PROIEKTU BERRIAK

### KONBOAK

Rock, Pop, Jazz eta Folk musika taldearen erabilpena.  
Baxu elektrikoa, Bateria, Latin perkusioa. Piano modernua.  
Armonia, Jazza, inprobisazioa.



### ATZERATUENDAKO PROGRAMA

Musika eta instrumentua (Orff sistema, Aschero sistema).  
Dinamika eta psikomotrizitatea.  
Entzuketak.



### INSTRUMENTU ETA ESPEZIALITATEAK

#### ADINA: 4 URTETIK AURRERA

HELDUENDAKO PROGRAMAK	BONBARDINA
MUSIKA HIZKUNTZA	KITARRA
SOLFEOA	BAXUA
HISTORIA, ARTE, ESTETIKA	BATERIA
ERA MUSIKALAK	PERKUSIOA
KAMARAKO MUSIKA	BIBOLINA
TRANS ETA REPENT.	BIOLA
ARMONIA	BIOLONTXELOA
KANTUA	KONTRABAXUA
PIANOA	KORUA
AKORDEOIA	BANDA
TXISTUA	ORKESTRA
KLARINETEA	TALDE INSTRUMENTALA
OBOEA	BALLETA
SAXOFOIA	TRONPA
FAGOTA	TRONBOIA
TRONPETA	



### MATRIKULA EPEA ZABALIK

Ekainaren 22ra arte Arrasate Musikalen • Iraileko lehen astean.  
Lanegunetan, arratsaldeko 5etatik 9ak arte.

Posta Kutxatila 104 • 20500 ARRASATE • Tfnoak: 77 05 40- 79 06 83 • Faxa: 77 05 40

**ORAIN DA ZURE AUKERA. ANIMATU!**







## ••••• Institutuan adierazpen askatasuna errespetatzen al da?

Institutuko helburu nagusiak "askatasun, tolerantzia eta elkarrekiko errespetuan oinarrituko den elkarbizitza bultzatzea" eta "gizarte eta kultur bizitzan parte hartzeko prestatzea" izanik, besteak beste, praktikan bi helburu hauek gauzatzen ez direla deritzogu.

Alde batetik Institutuak adierazpen askatasun indibidual eta kolektiboa bermatzen duela dio barne araudiak, printzipioz edozein gai sar daitekeelarik, baina barne araudia errespetatuz jarritako hainbat kartel Zuzendaritzak aginduta kendu izan da (konfinatuen ingurukoak, intsumisioen asanbladarako deialdikoak, A.A.B. koak, adierazpen askatasun eza salatzen zutenak...). Hainbat kartel beste batzuk baino tolerantziagoak dira (adibidez Eusko Jaurlaritzakoak edota EGIkoak-erakunde honen kartel bat data igaro eta hiru astez egon zen ikusgai, A.A.Bko kartel batek, adibide bat jartzearren, soilik egun bat iraun zuenean-). Jarritako triptikoak, behin edo behin, "desagertu" izan dira. Institutuko leiho edota zutabeetan-tabloi gutxi daudenez beste inon jartzetik ez baitago -kartel batzuk ere beste batzuk baino errespetu gehiago merezi dute Zuzendaritzaren aldetik (adibidez Aritz-en aldeko kartelak oraindik ikusgai ditugu, ez aldiz I.E.Eko ikasleen protesta jasotzen zuen kartela edota konfinatuen eskarien kartelak besteak beste).

Ildo honi jarraituz esan beharra daukagu Korrikako bideoaren emankizuna baimendua izan zen bitartean, torturari buruzko bideo emanaldiak ez duela baimenik jaso Zuzendaritzaren aldetik, biek iraupen bera dutenean, klase dinamikarik oztopatu edota

baldintzatzen ez dutenean eta parte hartzea zeharo aukerakoa denean. Modu berean greba, paro edota bestelako ekintzak, daramaten zeinuaren arabera, oztopatu egiten dira. Hitzaldiekin beste horrenbeste gertatzen da.

Bestalde, komunikatu ofizialak euskeraz eta gaztelaniaz idatziko direla dio barne araudiak, baina behin baino gehiagotan hauek soilik gaztelaniaz helerazten zaizkigu (azkeneko EATP-ei buruzkoak -Diseinukoak ezik-, Selektibitateko hainbat...). Non daude euskaldunon eskubideak? Non euskararekiko errespetua?

Gure ustez adierazpen askatasuna guztion eskubidea da eta eskubide hau guztiei errespetatu behar zaie modu berean, tratu bera jasoz. Lehen esan bezala barne araudiak hau jasotzen du, baina praktikan adierazpen ezberdinek ez dute tratu bera jasotzen (Zuzendaritzak barne araudiak gain jokatzen baitu), ondorioz adierazpen askatasuna kolokan geldituz. Kontuan izanik ikastetxe publiko bat dela eta ondorioz gizarte osari zabalik egon beharko litzatekeena, gizarteko edozein gaik (soziala, kulturala, politikoa...) Institutuan sarrera edukitu beharko lukeela uste dugu. Gainera, barne araudiak dioen bezala gizarte eta kultur bizitzan parte hartzeko prestatu behar dugu. Hau, gure ustez, hitzaldi, bideo, mahainguru e.a. en bidez gauza daiteke, hala eskatzen duenari Institutuko ateak irekiz. Honela, hezkuntza parte hartzaile baten aldekoak gara, hau klaseez gain egin daitezkeen ekintzen bidez gauza daitekeelarik.

Guzti honegatik Institutuan adierazpen askatasuna ez dela errespetatzen uste dugu eta adierazpen askatasuna guztiona dela aldarrikatu, tratu bera jaso beharko luketelarik adierazpen ezberdinek.

Zer dela eta horrenbeste oztopo? Zer dela eta isilerazi nahi dira gizarteko hainbat adierazpen?

P.D: Astelehenerako, aurreko asteazkenetik jarrita zeuden kartel batzuk eta pankarta bat (bertan "hemen adierazpen askatasuna ez da errespetatzen" zioena) "desagertu" ziren, legez edozein kartel, data jakinik ez badu, astebetetz erakusgai egon daitekeenean.

### ARRASATEKO INSTITUTUKO DELEGATUAK

## ••••• Zergatik ez Santxez?

A EDelkarta abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina bat egiten ari da askok jakingo duzuen bezala, euskal naziotasuna dugunoi dago-kigun moduan. AEDn bertan kanpaina nola dihoan jakin izan nahi dudanean harriduraz honen berri izan dut: euskal grafia bakarrik euskal jatorria duten abizenak aldatzen dituztela eta ez erdal jatorria dutenak, nahiz eta pertsona hori betidanik euskalduna izan. Hau da, Aguirre bat Agirre bihurtzen dute, baina erdal abizena dutenei erantzuten diete beraien abizenen grafia erdaraz izan behar dela, Sanchez bat kasu, jatorria erdal-duna delako. Garciaren kasua aldagarria dela erantzuten dute, historikoki aspalditik agertzen zaigulako Nafarroako erregeen kasuan, euskal nortasuna zuten eta.

Kontraesana iruditzen zait, zergatik Gartzia bai eta Santxez ez? Andaluc(z)ia euskaraz z-kin idazten eta ahozkatzten da, Chile euskaraz Txile idazten da, France Frantzia den moduan, nahiz eta jatorri arrotza izan moldatu egiten ditugulako, beste edozein herri-tan egiten duten moduan. Horregatik uste dut pertsonak apur bat markatzen ditugula hori ukatzen badiegu. Orain Echeberria duenak eta ez duenak aldatu nahi, jatorri euskalduneko abizena izaten jarraituko du, eta Sanchez

Santxez-era aldatzen badiogu bere abizenak erdal jatorria izaten jarraituko du, baina bere euskal naziotasunera moldatuta. Gero bai Etxeberriak eta bai Santxez-ek euskaraz hitzegingo dute edo ez, hori beraien esku dago. Baina terreneo prestatu joan behar dugu horrelako txikikerietan ere.

Agian etorkizunean kultur giroa ez da orain bezala artifiziala izango, errobot elektronikoen esku egonik, eta euskal nortasuna zerbait normalagoa bihurtuko da. Bukatzeko esan Argentinan dauden Zeziagarrak Ceciaga izango direla beti, Argentinarek ere beraien naziotasunera moldatzen dituztelako bitxikeri hauek.

JON OTERO URIBARREN

## ••••• XIII. Arrasate-Oñati "Jantzi kirola euskaraz" lemapean

Aurtengo lasterketan parte hartu ahal izateko, korrikalariak ordaindu behar izan dutenaren igoera dela eta, LAIXAN elkarteak ondorengo hau adierazi nahi du:

Gure elkarteak, AEDren laguntzaz, kirol munduan euskararen erabilpenari bultzakada bat emateko asmoz hartu zuen desagertzear zegoen lasterketa honen antolakuntzaren erreleboa eta ez aberasteko asmoz, gastoak estaltzeko makina bat gestio egin behar izaten baita.

Era berean, probaren prestigioari eusteko, aurten diru-sariak igo beharrean aurkitu gara eta, bestalde, kontuan hartzekoa da honelako kirol probentzako diru-laguntzak ere murriztuz joan direla.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu partehartzaile eta kolaboratzaile guztiei kirola euskaraz jatzeko laguntzeagatik.

OÑATIKO LAIXAN ELKARTEA




# Zein da zure ametsa?



**Maria Isidora De la Nava**  
Etxekoandrea  
(38 urte)

Loteria tokatzea eta diru horrekin bidaiak egitea. Etxeko sukaldea ere berria jarriko nuke, badaukat beharrik eta.



**Igor Pacios**  
Ikaslea  
(15 urte)

Ikasketak bukatzea eta nagusia izatean lana edukitzea. Todoterreno bat edukitzea ere ez legoke gaizki.



**Arrate Villamor**  
Langilea  
(32 urte)

Asko ditut. Bidaia luze bat egitea gustatuko litzaidake. Bestela, osasuna izanda eta ondo biziz gero konforme.



**Tomas Garcia**  
Langabetua  
(57 urte)

Osasuna izatea eta lehenbailehen Euskadin bakea lortzea.



**Teo Salaberri**  
Etxekoandrea  
(80 urte)

Gazteek lana izan dezatela. Bake apur bat ere nahi nuke baina barkamenaren bidez etorriko den bakea.



**Pako Hidalgo**  
Udaleko langilea  
(55 urte)

Bakean bizitzea, arazo asko dago eta. Estutasunetik irteteko loteria tokatzea ere gustatuko litzaidake.



**Rocio Sanchez**  
Fagorreko langilea  
(27 urte)

Etxe handi bat izatea eta hori garbitzeko norbait ere bai. Osasuna izatea ere eskatuko nuke.



**Jose Olivares**  
Jubilatua  
(70 urte)

Lo egitea, bizkarreko minaren ondorioz ez dut lorik egiten eta.



**EKOMOBIL**

**PEUGEOT**

**Aprobetxa zaitetz Renove Planaren abantailaz. Gutxienez 300.000 pta.ko beherapena, hile honetan bakarrik!**

Zaldizpe, 2 (Ospital ondoan)  
Tfnoa: 79 50 71 Faxa: 79 97 12 ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igualetoia .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

Anbulatorioak  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 16**  
 Egunez eta gauzez : Amezuza. Santamaina.

**Larunbata 17**  
 Egunez eta gauzez : Ruiz. Maala.

**Igandea 18**  
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

**Astelehena 19**  
 Egunez eta gauzez :Azkoaga. Ferrerías.

**Asteartea 20**  
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

**Asteazkena 21**  
 Egunez eta gauzez : Corcuera. Musakola.

**Osteguna 22**  
 Egunez eta gauzez : Irizar. Ergan

**16 OSTIRALA**

- **ZINEA**  
 "El caballero del diablo" 7etan eta 10etan
- **ANTZERKIA AMAIAN**  
 "Ernesto izatearen garrantzia" antzezlan Maskarada taldearekin, Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.

**17 LARUNBATA**

- **ZINEA**  
 "Historias de Kronen" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ROCK KONTZERTUA**  
 "Arsenal", " Los Pitxones" eta "Xementerio" taldeen kontzertua Ondarruko Gazte-txean gaueko 9etan.
- **UMEEN TANBORRADA**  
 Arratsaldeko 6.30etan umeen tanborrada Eskoriatzako Musika Bandarekin. SUD-Cek antolatuta.

**18 IGANDEA**

- **ZINEA**  
 "Historias de Kronen" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ARABA EUSKARAZ ARMENTIAN**  
 Araba Euskaraz 95 ospatuko da Armentian. Arrasateko autobusak goizeko 9.30etan irtengo dute Zaldibar pilotalekutik.
- **HAUR DANTZARIEN EGUNA**  
 Aire zabaleko XIV. Pintura Lehia-keta goizeko 9etatik 2ak arte, egindako lanak Monterrongo erakusketa -aretoan jarriko dira hilaren 30a arte, Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak antolatuta. 10.30etan Makailau lehia-keta Sebero Plazan. Epaimahaia: Kontxi Martinez, Valentin Moreno eta Xabier Zubizarreta. 10.30etan haur dantzarien taldeak Nafarroa Etorbidean bilduko dira. 10.45etan Nafarroa Etorbidetik Herriko plazaraino haur dantzari taldeen desfilea. 11.45etan dantzari taldeen kalejirak eta dantzak kaleetan zehar. 5etan dantzari guztien jarduna eta agurra herriko plazan. 6etan umeentzat tortilla lehiaketa Sebero Altube plazan eta 7etan "Txinparta" taldearekin dantzaldia herriko plazan

**PINTURA ERAKUSKETA**

Ekainaren 18tik uztailaren 2a arte San Juan Pintura Lehiaketaren erakusketa Monterronen. Orduetgia: Egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara

**III. KIROL JAIA**

III. Kirol Jaia Labegarrietako kiroldegian uztailaren 1ean. Arratsaldeko 4etatik 6etara hainbat kirol egiteko aukera egongo da.



**MASKARADA TALDEA AMAIAN**

"Ernesto izatearen garrantzia" Maskarada antzerki taldearen eskutik ostiralean Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

**NAFARROA EUSKARAZ MATERIALA**

Datorren astetik aurrera Nafarroa Euskaraz-eko materiala egongo da Salgai AEDn arratsaldeko 6etatik 8etara.



**19 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"Mujercitas" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN ANDRES HERRI ESKO-LAKO 25. URTEURRENA**  
Herri kirolak goizeko 11.30etatik ordu bata arte.

**20 ASTEARTEA**

- **ZINEA**  
"Mujercitas" 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.
- **SAN ANDRES HERRI ESKO-LAKO 25. URTEURRENA**  
Aretu Hockeya eta herri kirolak goizeko 11.30etatik ordubata arte.

**21 ASTEAZKENA**

- **SAN ANDRES HERRI ESKO-LAKO 25. URTEURRENA**  
Boleibola eta herri kirolak goizeko 11.30etatik 1.30etan.
- **FAMILIA ETA EMAKUMEARI BURUZKO HITZALDIA**  
Familia eta emakumearen bila-kaerari buruzko hitzaldia Famili eta Gizarte Hezketa-rako zentruan, arratsaldeko 4etan. Hizlaria: Begoña Uriarte Soziologa. Hitzaldiaren ostean ikasturte bukaerako luntxa izango dute.

**22 OSTEGUNA**

- **ZINEA**  
"Moriras en Chafarinas" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE KLUBA**  
"Johnny Suede" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria Tom Dicillo. Sarrera: 300 pta. eta gazte txartelarekin 250 pta.



**LAU BIDEKO APARKALEKUKO ORDUTEGIA**

Ekainaren 18an haurren eguna eta ekainaren 23, 24, 25 eta 26 San Juan jaietan Lau Bideko Udal aparkalekuak ondorengo ordutegia izango du: ekainaren 18an goizeko 8etatik 10ak arte. San Juan jaietan 23tik 27ra gau eta egun zabalik.

**MARRAZKI ETA GRABATUEN ERAKUSKETA**

Ekainaren 16tik uztailaren 2a arte Benito Zumalderen Marrazki eta Grabatuen erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

**AUKEAKO BAZKIDE TXARTELA**

**AUKEAKO bazkide txartela berrizteko 9do lehenengo aldiz egiteko interesatu dutenei jakinarazten zaie 1.995 urteko kuotak ezin izango direla eskuz ordaindu kiroldegian, dagokion diru-kopurua Kutxa, Euskadiko Kutxa, B.B.V edo Banco Gipuzkoanoko kontu korronteetan egin daiteke eta ordainagiria AUKEAKO bulegoan aurkeztu. Informazio gehiagorako Musakolako kiroldegira joan edo 79 04 27 telefono zenbakira deitu.**



**KANPOKO LOREN APAINKETA LEHIAKETA**

**Ibai-Artek kanpoko loren apainketa lehiaketa antolatatu du. Lehiaketan erdialdean bizi diren arrasate-arrak parte hartu ahal izango dute baina ez da beharrezkoa izenik ematea. Irabazlea nor den uztailaren 12an jakingo da. Sariak: lehenak 35.000 pta, bigarrenak 25.000 pta. hirugarrenak 10.000 pta. eta laugarren eta bostgarrenak 5.000 pta.**

**KIROL URPEKARI TITULUA**

Ekainaren 19tik 25era Bergarako igerilekuan eta aste-bukaeratan itsasoan egingo dira ariketak. 19, 20 eta 21ean arratsaldeko 7etatik 9etara Bergarako Kultur Etxean eta 22 eta 23an Agorrosingo igerilekuan ordutegi berean. Prezioa 34.000 pta Deba Garai-ko edozein udal kirol Zerbitzuetako bazkideentzat, 38.000 pta. gainontzekoentzat. Informazio gehiagorako eta izena emateko dei egin Musakolako kiroldegira, telefonoa: 79 04 27.



“Gazteek jakin badakite esplotatzen dituztela, baina ez dira ezer egitera ausartzen; eta honetaz gain, sindikatuok eta gainerako langileok besoak gurutzatuta eta hainbeste enpresari lapurren aurrean ezer esaten ez dugularik ikusten bagaituzte, azkenean normalean isilik eta geldirik egotea dela onartzera heltzen dira eta hori ez da horrela.

GELMAREN kasua oso adibide garbia dugu hori ikusteko. Enpresa Batzordean ordezkariak duten sindikatu gehienek (ELA, UGT, LAB) uko egin zioten legez kanpoko kontratuak salatzeari, kaltetuak horretara ausartzen ez zirela argudiatuz”.

**Juan Ramon Garai**, ekainaren 11

**Egunkaria**

“Arrasate euskalgintzaren alorrean elkarlanerako eredu ere bada. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) aitzindaria izan baitzen herrietako euskara taldeen sorreran, 1983. urteko udazkenean sortu zutenetik, eta AEDk egindako bidea emankorra izan da erabat.

Arrasate Komunikabideak ere (ARKO), AEDren modura, Euskal Herri osoan parekorik ez duen esperientzia da. Arrasate Press aldizkaria 1988an sortu zuten, eta Arrasate Telebista 1990ean. Elkartearen eta Udalaren uztarketak berebiziko garrantzia izan du horretan guztian, eta elkar osatu egiten dutela erakutsi dute”.

Ekainaren 11,

**Egunkaria**

“... Ia bi mila albiste ikertu ditu ikuspuntu ezberdinetatik. Berriaren sujetuak eta akzioaren kokapen asko ukitu ditu, toki geopolitikoan bukatzeko. Gure gizartea eta gure nazioa, existitu egiten direlako daude present eta ‘ausent’ arestian aipatutako kateetan (ETB, Telenorte eta Telenavarra). Gutasuna da gakoa. Gurekiko dugun isla eta erreferentzia informatiboa da Edorta Aranek erakutsi nahi izan duena”.

**Ines Intxausti**, Ekainaren 11.

**Egunkaria**

## Nola joan zen Egunkaria Jaia?

**B**eno hasteko esango nuke goizean jende aldetik ez zela mugimendu handiegirik egon, gutxi samar esango nuke, baina hori urteroko kontua denez ez da harrizkoa ere. Dena dela guk ditugun datuen arabera, esan behar da aurreko urteetako zifrak gainditu ditugula, ziu gaude 20.000 laguneko muga horretatik pasatu ginela. Horrekin ez dut esan nahi egun osoan zehar 20.000 lagun inguru egon zenik jai-gunean edo jai-gunearen inguruan, baina bai pasatu zirenen guztien artean 20.000tik gorako zifra gainditu zutela. Eguraldiak ere uste dut nolabait baldintzatu zuela jendearen etorrera, neurri polit bat egotetik kristona egotera dagoen zubia zeharkatzerik ezinezko bihurtu zuela iruditzen zait eta.



**Kike Zurutuza**  
Egunkaria Festako antolatzailea

Horretaz gain, beste bi gauza ere aipatuko nituzke: bata eguna inolako arazo barik igaro zela, ez zela inungo problemarik egon eta jende behar bezala portatu zela. Monterron zaintzeko eginda geneukan deialdi bereziari erantzun bikaina eman zioten igandean Arrasatera etorri zirenek, eta ondorioz ia ez du kalterik jasan.

Antolakuntza aldetik ere ez zen inolako arazorik egon, eta gauzak aurrez pentsatuta zeuden bezala irten zitzaizkigun.

Hori dena kontuan hartuta ez da arraroa egunaren bururako giro jator, on eta euskalduna sortzea eta azkenean hori da balio duena.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55





LASO-ARREGI

## Uste moduan arrakastatsua izan zen Egunkariaren IV. Jaia

Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritako milaka Egunkariazale bildu zen domekan Arrasaten. Goizean eguraldi tristea izan bagenuen ere, arratsalde aldera zerbait hobetu zuen eta herria jendez betetzen joan zen. Anto-

laitzaileen esanetan, marka guztiak hautsi ziren domekan eta 20.000 lagun baino gehiago etorri zirela azpimarratu zuten. Ekintzei dagokinez, denetarik izan zen baina batez ere talde desberdinen musika emanaldiek berotu zuten

giroa eta Oskorrik, gainera, diska berria estreinatu zuen. Eguerdian harre-  
ra luntxa izan zen eta Egunkariako arduradunak, telebistako izarrak eta erakundetako agintariak bildu ziren luntxean.

### Goizetik gauera intsumisioaren alde

II. Intsumiso eguna burutu zen larunbatean eta egun hori ospatzeko, ekintza ugari egin zen. Goizean hainbat antimilitarista San Prudentzioko Gurutze Gorrira joan zen, intsumisoen ustez erakunde horrek soldadutzari laguntza ematen dio eta. Eguerdian Seberon bazkaldu eta arratsaldean manifestazioa egin zen bi egun lehenago kartzelaratu zuten "Bodegas" intsumisoiari elkartasuna adierazteko. Gaualdera kontzertuak hasi ziren herriko bost tabernetan

### Arrasatearra istripuan hil

Larunbatean, istripua izan zuten Arrasateko hiru emakumek Abadiñoko Matiena auzoan. Autoz trenbidea pasatzen zihoazela, autoa trenbide erdian geratu eta trenak harrapatu zuen 70 metro aurrera eramanez. Bi emakume beren kabuz irten ziren autotik baina hirugarrena, 42 urteko Isabel Jauregiazua, larri zauritu zen eta astelehenean hil egin zen.

### Argazki rally-a

Argazki bidez izeneko ibilbideko II. argazki rally-

a egin zen domekan.

Igandean argazkiak ateratzeko motiborik bazegoen arren, beti bezala zozketa egin zen eta ateei, zuhaitzei, animaliei edo sakontasunari argazkiak ateratzea egokitu zitzairen. 21ean ezagutuko dira irabazleak.

### Hitzaldia enpresariei

Felix Iraola, Gipuzkoako Komertzio Ganbarako Zuzendariak hitzaldia eman zien eskualdeko hamasei enpresariri asteartean. Hitzaldia Mankomunitatean izan zen eta kanpo harremanak eta esportazioak nola eraman azaldu zien Iraolak.

### JAIOZAK

- Jone De la Maza Gorosabel. Maiatzaren 30ean.
- Mikel Iribekanos Juaristi. Ekainak 1.
- Maria Heriz Altuna. 8an.


### EZKONTZAK

- Marcelino Amozarrain Kortabarria eta Irune Altube Eraña. Zibilez. Ekainaren 5ean.

### HILDAKOAK

- Saturnino Sierra Cáceres. Ekainaren 6an. 85 urte.
- Maria Galdos Berasategi. 5ean. 96 urte.
- Manuela Uribetxebarria Barandiaran. 6an. 84 urte.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua




## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

## ARGI PLASTIC


- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30





\* Jose Mari Mujika

# Arrasate Kantari jaialdia

**B**atek baino gehiagok gal-detuko zuen honezkero zergatik musika jaialdi hau.

Kontuan hartu behar da Arrasate Euskaldun Dezagun helburua arrasatearrok euskara erabiltzeko ohi-turara bihurtzea dela. Azken hirurogei urteotan gaztelera hitzegiteko inertzian jausi gara. AEDk duen helburua lortzeko, inertzia hau hautsi beharra dugu, honek esan nahi duenarekin: gaztelera kontserban jarri eta euskara erabili.

Horretarako bitarteko bezala, ekintza berriak antolatzen ditu AEDk, eta hauxe da, beste AEDko hainbat ekintzarekin bezala, kantu eta musika jaialdi honekin lortu nahi genuena: euskaraz jardun araziko duen egoera eskaintzea.

Ekitaldiak, ahal diren atseginenak izatea bilatzen da jendearentzat, bai partaideentzat eta baita ikusleentzat ere. Oraingoan, kulturekitaldi bat antolatu nahi izan dugu herriko abeslariekin. Eta jendearengandik jaso dugun iritzia benetan polita eta atsegina izan da.

Ez zen inor harritu noski jaialdi honen berri izan zue-nean, arrasatearren artean musikarako ezezik abesteko ere nahiko zaletasun badelako. Hor dabil abesbatzetan

.....

*“Jaialdi honetan kantagintza herritartzeko asmoa genuen”*

hainbat gaztetxo, gazte eta heldu, eskoletan nahiz Goi-kobalu abesbatzan. Eta ezin ahaztu 1971 inguruan Danok-ek antolaturiko Kanta Berri emanaldi ospetsuak.

Jaialdi honetan kantagintza herritartzeko asmoa genuen. Profesional giroaren seriotasuna arindu eta zale-tuek egindako emanaldi jatorra ospatu. Eta ezin uka jaialdia dotorea suertatu dela.

Bestalde, abestu diren kantak zabaltzeko eta pres-tijiatzeko modua izango dela pentsatzen dugu. Herriko hainbat abeslarik eta musika-rik beren ahalmek erakusteko eskenatoki bat ere izan zuen. Ea talentu berriak azaltzen diren! probatu gabe ez baita jakiten.

Jaialdian gozatu genuen giroa ikusita, prestatzaileon asmoak neurri handi batean bete direla uste dugu. Jende ugari izan zen Amaia antzokian, gazte gehiegi ez bazen ere. Hala ere, Arrasate bezalako herri batean honelako jaialdian hirurehun ikusle biltzea ez da gehiegi. Hala bai?

Musika eskolek eta abesbatzek egiten duten bezala, jaialdi honek ere euskarazko musika zabaltzen eta ondorengoenganatzen laguntzea nahi genuke. Uste dut antolatzen jardun dugunok nahiko ausartak izan garela gure helburuak ipintzerakoan, betekote dira?

Denon artean jar dezagun Arrasate kantari.

\* AEDKO KULTUR SAILEKO KIDEA

## USTEAK USTE

### EGIA ALA GEZURRA?

Izenburuko galderari erantzun behar izaten zioten garai batean ATBketan lehiaketako parte hartzaileek, eguneroko errealtatearekin zerikusia zuen zerbait esan, eta gezurra edo egia zen asmatu behar izaten zuten.

Lehiakide bihurtu gaituzte komunikabideek aste honetan. “Amenazas a concejales en Hernai, Pasaia y Arrasate” irakurri nuen El Diario Vasco egunkariko lehen orrialdean martitzen goizean. Eguerdian, bazkaltzera nindoala autoan Herri Irratiko “Euskadin gaur” saioa entzunez beste hainbeste esan zuten. Gauean, lanetik etxera iritsi, Teleberri saioa jarri eta han ere lehengo lepotik burua.

Ez dakit nondik atera zuten berria, ez dakit Hernani edo Pasaian zer gertatu zen, baina Arrasaten, guk geuk berria irakurri eta gero politikoen artean erron-datxoa egin genuen, eta gezurtatu egin ziguten guztia, ez zegoen mehatxurik.

Dagoeneko ez zait arraroa egiten honelako berrietan, kazetaritzan hain oinarrizkoa den informazioa kontrastatze-aren legeari kasurik ez egin eta beste barik botatzea. Egia ala gezurra?

BEÑARDO KORTABARRIA

MARKO-JARTZEAK



**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 05 • Faxes: 79 13 84



HAURTXOA


Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE




ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA

J. Carlos Guerra, 1  
Tfnoa: 79,91 64 ARRASATE





Xabier Zubizarreta.



Jose Mari Loiti.

## Alkatearen inkognita bihar argituko da

**B**iharko Alkate aukeraketan PSE-EEK J.M. Loitiri emango dio botoa, baina EAk ez du bere jarrera bihar eguerdiko plenora arte jakinaraziko, eta horrenbestez ezinezkoa da aurrez Alkate nor izango den jakitea, aukera gehienak PNVko hautagaiarentzat direla ematen duen arren.

J.M. Urizar, Arrasateko EAaren lehendakariak adierazi zuenez, "alderdiekin negoziatzen ari gara eta erabakia azken momentuan hartuko dugu. Aurrez ez dago zer egingo dugun esaterik". Alderdi politikoetako Goi-ko agintariak hirukoaren alde azaldu dira garbi garbi eta herrietan beste jarreraren bat hartu ote daitekeen galdetzerakoan, "posible da hori gertatzea" erantzun du Urizarrek. "Hori bai, herriko batzordean erabakitzen denari jarraitu beharko diote zinegotziek. EAko hiru zinegotzien botoa berdina izango da". EAko lehendakariak gainera, gezurtatu

egin du astelehenean EAk egin zuen bileran 29 afiliatutuk hirukoaren alde eta 27k aurka bozkatu zutenik.

Astean zehar alderdien arteko elkarrizketak izan badira ere, horien inguruko argibide gutxi eman dute alderdiek. Herriko asanbladan erabaki zenari jarraituz, bere alderdiari emango dio botoa Ezker Batuak eta hirukoia aterako ez balitz, HBrekin batera gobernuan egotea

aztertuko lukeela esan du Joseba Ugaldek. PPko zinegotziak, oraindik zer egingo duen ez dakiela eta erabakia hartzeko gaur (ostirala) EAJ-rekin bilera izan behar zuela argitu du. "Hirukoaren alde bozka dezaket baina baldintzak jarriko ditut" esan zuen PPko zinegotziak.

Gauzak horrela, badirudi HBk Udal Gobernuak gal lezakeela, baina oraindik ez du esperantzarik galdu.

Bihar egingo den plenoaren ondorioz "iskanbilak sor daitezkeela eta", Ertzaindegian ohi baino ertzain gehiago egongo da.

Bestalde, hainbat komunikabidek asteartean kale-ratu zuten informazioaren arabera Pasaia, Hernani eta Arrasateko EA, EAJ eta PSE-EEKo zinegotzi batzuk hirukoia ez osatzeko mehatxuak jaso ei zituzten. ARKoko komunikabideek alderdien arteko erronda egin eta zinegotziek ukatu egin dute inolako mehatxurik jaso izana.

**PSE-EEK Loitiri emango dio botoa**

• • •

**EAko hiru zinegotziek boto berdina emango dute**

• • •

**PPk hirukoari eman diezaioke botoa**

• • •

**EBak bere alde egingo du**

• • •

**HB alkatetzari eustekotan**

### Lur-sail industrialak salgai

Mugarriten dituen bi lur-sail industrial enkantera aterra ditu Arrasateko Udalak. Bi sail jartzen dira salgai, eta erosi nahi dituenak biak erosi beharko ditu. Lur-sail batek 1.435 m<sup>2</sup> ditu eta besteak 6.959. Bien prezioa 42.750.000 ptakoa denez, lur horiek erosteko proposamenek hortik gorakoak izan beharko dute. Informazio zehatzagoa nahi duenak Udalera jo dezake.

### PSE-EEKen eskaria

PSE-EEK idatzi bat aterra du aste honetan, Xabier Zubizarretari San Frantzisko Xabier ikastolarekin sinatu zen hitzarmeneko klausula bat baliogabe utz dezala eskatuz. Orain dela bi urte t'ardi Udalak eta ikastolak hitzarmena sinatu zuten. Haren arabera, beharrezko azpiegiturak jarriko zizkion Udalak ikastolari eta horren truke Ikastolaren lokal eta lur-sailak Udalak eskuratu. Udalak bere konpromezua beteko ez balu Ikastolak ondarea berreskuratzeko aukera izango luke. Forma aldetik irregulartasunak daudela eta, plenoan onartu den ebazpena indargabe uzteko eskatu dio PSE-EEK alkateari eta publikoki adieraz dezala egindakoa; honek, berriz, plenoan onartutakoa ezin duela indargabetu erantzun du.

### Iturripe itxita San Juanetan


San Juanak direla eta, datorren 24, 25 eta 26an Iturripeko kiroldegia itxita egongo da. Beraz, jaietan kirola egiteko asmotan zabilzate-nok beste aukeraren bat egin beharko duzue.



# Munduko lehen giltza elektronikoa egin du Ikerlanek

“Mecatronic” izeneko giltza elektronikoa egin du Ikerlanek eta gutxi barru, giltza hori merkatura aterako du Aretxabaletako Azbe-Zubia enpresak. Ohikoak baino garestiagoa baina segurtasun handikoa eta kopiezi- na izango da giltza. Horrez gain, urrunetik galdarak lanean jartzeko urrun managailua egin du Ikerlanek eta Fagorrek aurki jarriko du salgai. Fagorren eskariz ere domotikan, lanean ari da Ikerlan etxeko aparailuak elektronikoki kontrolatzeko alorrean.

Iazko balantzea egiteko, asteazkenean emandako prentsaurrekoan azaldu zuten horren berri Ikerlaneko ardu-



94. urtearen balantze ona egin zuten Ikerlaneko arduradunek.

radunek. Pedro Etxabe, marketing zuzendariaren berbetan, iazko urtea “interesgarria” izan zen. 1.265 milioiko sarre- rak eta 50 milioiko irabaziak izan zituen ikerkuntza alorrean


lan egiten duen kooperatibak eta enpresendako egindako proiektuak, iaz baino %27ko gehiago izan ziren. Etxaberen esanetan gainera, “punta-pun- tako enpresendako lan egin du

Ikerlanek”.

Iaz espazio proiektuekin izandako harremanak aurtan ere jarraipena izango dute gainera. Uztailean espazioratu zen Ramses proiektuan Ikerlanek izan zuen partaidetza arrakastatsua izan zen eta orain, espazioan arituko den errobot baten besoa egiten ari dira. Hiru urteko ikerketen ondoren, bere kasa mugitzen den errobota ere prest du Ikerlanek eta orain, makina hori zerbaitetan aplikatzeko eskaria noiz jasoko itxaroten ari dira. Kasuren bat aipatze- arren, tokiak garbitzeko mol- da daiteke errobota.

Asteazken arratsaldean Ardantza lehendakariaren bisita jaso zuten Ikerlanen.

## MODA-MODAN



**1.950**  
PEZETAN  
ZER DERITZOZU?

Zatoz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak! Harritu zaitez ispiludun erduekin eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.

Eta denak kalitate optikodun kristalekin. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

ETA NAHI BADUZU,  
GRADUATU  
EGINGO DIZKIZUGU




**"ZURE MULTISOLEKIN KAMISETA  
BAT OPARITUKO DIZUGU"**

Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

**MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA**  
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE - Ibargaray, 16 • BERGARA  
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA





Ikerketaren berri eman zen asteartean egin zen prentsaurrekoan.

## Emakumearen egoerari buruzko datuak kaleratu dira

Herriko emakumeek eurei zuzenduriko bulegoa botatzen dute faltan, egoera sozio ekonomikoa ezagutzeko egin den ikerketan jasotzen denez. Txosten horrek, arlo desberdinetan emakumearen egoera zelakoa den ere jasotzen du. Gizonezkoen hezkuntza maila emakumeena baino altuagoa dela baina gazteen artean parekatuz doala adierazten dute ikerketako datuek. Gainera, emakumeek osasuna, irakaskuntza edo 3. sektorearekin lotura duten lanbideak aukeratzen ei dituzte. Lan merkatuan ere gizonezkoen aktibotasun tasa handiagoa da, eta emakumeei gehiago kostatzen zaie lana bilatzea. Nahiz eta emakume batzuk etxetik kanpo lan egin,

oraindik etxeko lanen ardura eurek dute.

Emakumeen ardurak desberdinak dira adinaren arabera: gazteenena ikasketak, nagusiagoena lana eta 50 urtetik gorakoena bakardadea eta osasuna. Sexualitateari buruz, informazio gutxi jaso dutela esaten dute emakumeek eta tratatu txarren inguruan, uste baino kasu gehiagorekin topo egin dutela adierazi du ikerketaren egileak.

Ikerketa hau egitea herriko emakume taldeek eskatu zuten, aurrerantzean talde horiek eta arduradun batzuk bildu egingo dira datuak sakonago aztertzeko. Ikerketa Goizane Larrañaga arrasatearrak egin du Udalaren enkarguz eta zazpi hilabeteko epean.

## Traste handiak ateratzeko eguna aldatu

Orain arte traste handiak hileko azken ostegunean atera behar baziren ere, hemendik aurrera lehenengo ostegunean atera beharko dira. Kasu batzutan azken osteguna hileko laugarrena suertatzen denez eta beste batzuetan bostgarrena, gaizki uleritzeak izan dira eta jendeak behar ez zenean atera izan du zaborra. Horregatik, aldaketa egitea eskatu dio Udalak Deba Garaiko Mankomuniteari.

## Gesalibarren ATB ikus daiteke

Astelehenetik Arrasateko Gesalibar auzoan Arrasate Telebista ikusten da. Udalak errepikagailua jarri du Muruko antenan eta oraindik probetan ari badira ere, ATBko seinalea jasotzen da Gesalibarren. Horrez gain, beste errepikagailu bat jarri dute San Kristobalen, Zaldibarren eta Meatzerrekan ATB hobeto ikusteko. Hala ere, Gesalibarren oraindik kate pribatuak (Antena 3 eta Tele 5) ez dira ikusten.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena leihoetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE





**Arrasateko gimnasia erritmikako taldeak** ikasturte bukaerako erakustaldia egin zuen domekan Iturripeko kiroldegian. 5 urtetik 16 urte bitarteko 65

neska izan ziren tresna desberdinez eta lurreko ariketak egiten. Taldeko gaztetxoek elkartu genituen eta hortxe dituzue etorkizuneko gimnastak.



**“Arrasate kantari”** kantu jaialdian Amaia Zubiriak parte hartu behar zuelajarri zuen DVEk eta Amaia Zubiriak hartu zuen parte baina Arrasateko Amaia

Zubiriak eta ez Donostiako kantari famatuak. Arrasateko Amaiak, hain famatua ez izan arren, ahots polita eta ederra due-la garbi utzi zuen.



**Al Andalus Kultur Elkarteak** datozen bi urterako erregina eta ohorezko damak aukeratu zituela jakin arazi genizuen joan zen astean baina argazkia ez zetorren bat testuarekin, argazkikoak Corazón de Encina elkartekoak ziren. Al Andalusekoak goikoak dira: Olga Perez erregina, Ohorezko lehen dama Naiara Conde eta bigarrena Ana Belen Hernandez dituzue. Zorionak



**Intsumiso Eguna** ospatu zen zapatuan Arrasaten. Ekintzak goizean goizetik hasi ziren, Bizikleta martxan San prudentziraino joan ziren parte hartzaileak.

2.30etan Seberoko plazan herri bazkaria izan zuten eta arratsaldean Arrasateko tabernetan era guztietako kontzertuak. Egun borobila, beraz, intsumiso egunekoa.

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta  
Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76





San Juanetako Umeen tanborrada izango dugu zapatuan Arrasaten. Tanborradan ume ugari hartuko du parte baina batzuk funtzio berezia izango dute: **Jon Ander Ormaetxea**

tanborradako Generala izango da; **Maialen Morenok** SUDCeke bandera eramango du; **Araitx Etxabek** Ikurrina eta **Naiara Arkautzek** Arrasateko bandera.

### IZEN PROPIOAK


● **Fernando Gomez-Acedo** 44 urteko bilbotarra Fagor elektro-domestikoko presidente aukeratu dute, Juan Mari Otaegi ordezkatzuz. Juan Jose Arabaolaza 51 urteko arrasatearra Copreci-ko presidente berria da Jokin Ugarte ordezkatzuz eta Juan Jose Ansoategi Fagor Ederlanekoa. Juan Jose arrasatearra da eta 49 urte ditu.

● **Jesus Goinetxe** Lagun -Aro Kontseilu Errektoreko lehendakari berria da. Jesus bizkaiko Arrieta herrian jaio zen orain dela 59 urte. Roman Balanzategi, uztailen jubilatatu behar delako, ordezkatzuko du Jesusek.

## Emaitza hauekin zergatik Alkatetza PNVri?

**Arrasatek eman du hitza!**

*Aurrera bolie!*




# HERRI BATASUNA



# ALMEN

**LOGSE Batxilergoak  
emateko baimendua**



## **ADARRAK:**

- **Natur eta osasun zientziak**
- **Giza eta gizarte zientziak**

**Bilera informatiboa  
(Guraso eta ikasleentzat)**

Ekainak 22, osteguna  
Arratsaldeko 6etan  
ALMEMeko areto nagusian



**ALMEN**  
IKASTOLA

**MATRIKULA EPEA: UZTAILAREN 7ra arte**



Futbito 94-95

ZALDIBAR  
ZALDIBAR  
ZALDIBAR

Babesleak: JMf, Kajoi taberna eta Arrasate Kirolak



# ZULOAK TXAPELDUN!

## Txapelketako beteranoenak irabazle

Arratsaldeko 5ak, harmailak jendez gainezka, Zaldibarren tentsioa nagusi eta ikusleen artean ikusmin handia. Zuloak eta Adelaida Haizea kantxan norgehiagoka hasteko gertu. Haritz epaileak hasiera adierazi eta tentsioa eta emozioa izan ziren nagusi hasierako 10 minututan baina joku bizia ilunduz joan eta gatz eta piperrik gabeko neurketa bilakatu zen.

Adelaida Haizeakoek gol aukera gehiago sortu zituzten baina emaitza on barik. Partiduan, bestalde, bi protagonista nagusi, Adelaidako

Edu atezaina eta Zuloakeko Iban. Errefluju onak dituztela erakutsiz maila ona eman zuten.

Partidua eta luzapena jokatu eta gero, penaltietara jo behar. Penaltietan urduritasuna protagonista baina azkenean 6. penaltia jaurti ondoren txapelketako talde beteranoena jaun eta jabe. Pronostiko guztien aurka Zuloak txapeldun.

Txapeldun berriarekin Maritxu Kajoi bixamona arte agur esango digu hain arrakastatsua den Zaldibar txapelketak.



*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24  
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 26 23







## Zuloak txapeldun

Zuloak eta Adelaida Haizea nor baino nor izan ziren finalean. Talde bietako jokalariek gogor eta gogoz hasi zuten norgehiagoka, baina hasierako minutuetako bizitasuna apurka apurka gutxituz joan zen eta joku biziaren lekua joku soso samarrak hartu zuen. Baloia hara eta hona zebilela Adelaidakoek lehen gola sartu zuten, Rafari esker. Aldeak ez zuten asko iraun eta Fernando Urangak


berdinketa lortu zuen lehen zatia bukatzeko zegoela. Bigarren zatiko jokua askoz ere motelagoa izan zen, emozioa emaitzan baino ez zegoen eta. Adelaidakoek aukera garbiak izan bazituzten ere, baloiak ez zuten aterako bidea hartu eta banako berdinketarekin bukatu zen partidua.

Luzapenean ere ez ziren kontuak aldatu, ez Zuloa ezta Adelaida Haizea ere ez

ziren gola lortzeko gauza izan. Luzapenean ostean penaltien txanda etorri zen. Bost penalti jaurti zituzten bi taldeetako jokalariek eta kale bana egin zuten. Berrito berdinketa. Zuloakek 6. penaltia jaurti eta baloia sarera. Adelaidako Lumak jaurti baina kanpora. Ezbeharrezko jaurtiketa horren ondorioz Zuloak bihurtu zen 1995eko Zaldibar txapelketako irabazlea.

## Fosforos hirugarren sailkatua

Fosforos eta Cervecería Leintzek 3. eta 4. postuak erabakitzeko jokatu zuten. Neurketa bizi bizia izan zen hasieratik eta Cervecería Leintzeko Carlos eta Ferminek lehen golak sartu zituzten lehen zatian. Bigarren zatian Fosforosek aldea murriztu zuen Juanek sartutako golari esker, baina Juan ez zen konformatu gol bakarraz eta bigarrena ere lortu zuen. Binako berdinketaz Fosforoseko Patxi jokalaria hirugarren diana lortu zuen. 2 eta 3ko emaitzaz bazirudien Fosforosek irabazi behar zuela, baina azken minutuan Ferminek berdinketa lortu zuen. Neurketa berdinketarekin bukatu zen eta luzapen minutuak jokatu behar izan zituzten bi taldeek. Luzapena hasi eta segituan, Fosforoseko Patxi gol erabakiorra lortu zuen, partidua irabazteko balio izan zuen gola. Horrela bada, gol horri esker Fosforos 3. postuaren jabe egin zen eta Cervecería Leintzeko 4. postuarekin konformatu behar izan zuten.







**Adelaida Haizeako Txapeldunordeak** triste samar baina kiroltasun handiz konformatu ziren bigarren postuarekin. Talde honek ere txalo beroa merezi du, finalera heltzea ez da auntzaren gauerdiko estula eta.



Zuloak taldeko **Galok eta Patxik** jaso zuten txapeldunen garaikurra.




**Juanito Errasti** izan zen finaleko jokalaria onena epaimahaikoentzat eta sari berezia jaso zuen.



**Cerveceria Leintzekoak** laugarren tokian sailkatu ziren, saria garaikurra.




**Jokalaria onenen sariak** MSM taldeko Enrike Uribarrenek, Ke ostias taldeko Raul Astondoak, Petroleroeseko Jabi Garciak, Bukanakeko Joseba Ansoñok eta S. Ugarteko Alberde de la Mazak jaso zituzten.



**Iñigo Ugarte** Uglys Txinato taldeko jokalaria guztion gogotan egon zen. Iñigok auto istripuan hil zen eta bere omenez plaka bat jaso zuten senitartekoek





**Zaldibarko harmailak** jendez gainezka egon ziren. Adin guztietako jendea hurbildu zen partiduak ikustera



**Juerga giroa** nagusitu zen finalistek eta antolatzaileek izan zuten afarian. Afalostean juergak jarraitu zuen goizaldera arte. Behin ospatu ezkeru, ondo ospatzea merezi!



Zapatuko bi partiduetako epaileak **Andoni Zurbano eta Haritz Azkarraga** izan ziren. Partiduetan serio eta fin ibili ziren, baina afarian? Argazkia ikustea baino ez dago!



Aitak Zaldibar txapelketa irabazi eta **seme alabak ospatu**. Ikasteko ez dago gaizki!



**Bukatu da akabo.** Hemendik aurrera, antolatzaileek hilabete batzuk izango dituzte patxadan egoteko eta jokalariek, berriz, talde sendoagoak osatzeko.



● *Jose Jaime Bengoa*

# ARKOren etorkizuna ahoan

ARKOren lehendakaritza hartu zuen Jose Jaime Bengoa martxoan, ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebista osatzen duten elkartearena hain zuzen ere. Orain gutxira arte komunikabideen mundua azaletik ezagutzen zuela dio eta ardura hori hartu duenetik herriko komunikabideak begi kritikoagoaz begiratzen ei ditu 27 urteko arrasatear honek.

– Arrasatearrek badakite ARKO zer den?

– Herritarrek bere produktuentatik, Arrasate Press eta Arrasate Telebistarengatik eza gutzen dute ARKO. Azkenean produktuek erakusten dute ARKO zer den.

Informazioa euskaraz lantzen eta ematen duen kultur elkarte da ARKO. Era horretan euskararen normalizazioa lortu nahi dugu, hau da, jendeak euskara erabiltzea eta euskaraz irakurtzen eta entzuten ohitzea. Orain denbora gutxi euskaraz tutik ere ulertzen ez zutenek, nik uste orain Arrasate Press eta ATBri esker zerbait ulertzen dutela, jendea nolabait euskarara ohitzen ari dela. Komunikabideak elebiduna izango balira, jendeak errazera joko luke, gaztelerara.

– Zein unetan hartu duzu lehendakaritza?

– Etorkizuna finkatzeko unean gaude. Egoitza aldatuko dugu, langilegoaren %80a berria da, iratiaren kontua ere hor dugu... Gauza guzti horiek lotu behar ditugu, etorkizuna oraintxe hasten delako.

Ospital zaharrea nahiko egoera kaskarrean gaude eta uste dut ematen dugun zerbitzuaren truke merezi dugula egoitza duinagoa. Udalak egoitza berria eman digu, orain INEM dagoen tokira pasako gara baina ez dakigu noiz. Lana ondo egiteko behar diren gutxienezko baldintzak betetzeko zenbaterainoko dirulaguntza jasoko dugun ere ikusi beharko dugu. Aurten 11 milioi ematea onartu du Udalak baina ez dakigu nahikoa izango den. Teorikoki Gabonetarako egoitza berria egon beharko ginatke baina uste dut beranduago aldegingo dugula.

– Udal irratia dela eta, zer asmo dago?

– Irratien baimena udalena izan behar dela agintzen du legeak baina ARKOren asmoa iratiaren ardura hartzea da. Komunikabide bat ezin da Udalaren menpe egon eta gainera, Udalarendako gainkarga garrantzitsua izango li-



tzateke. Irratia egoitza berria kokatu nahi du Udalak beraz hori ere negoziatu egin beharko dugu.

– Diru aldetik zein egoera bizi du elkarteak?

– Apurka-apurka independentzia ekonomikoa lortzea da gure helburua eta ARKOk ahaleginak egiten ditu hori horrela izan dadin baina Udalak ematen digun dirulaguntza gero eta txikiagoa da. Publizitate gehiago salduz eta soldatak igo barik, jeitsiera horri aurre egitea lortu dugu; baina noiz arte egon gaitzke horrela? Nolabait dirulaguntzen arazoa konpondu beharko dugu, lana ondo egiten dugula erakutsi dugu eta.

– Arrasate bezalako herri batendako luxoa da telebista eta aldizkaria izatea?

– Informatuta egon daitezzen herritarrei zerbitzua eskaintzen diegu; gainera, komunikabideen munduan sartu nahi dutenek Arrasaten badute aukerarik. Beste herri batzuekin konparatzen bada pribilegioa izan daiteke zerbitzu horiek edukitzea baina ez luxu bat.

– Lehendakari zarenetik, arreta gehiago jarriko duzu telebista eta aldizkariak egiten duten lanean.

– Bai, begi kritikoagoaz ikusten saiatzen naiz. Berriak zelán lantzen diren ikusten dut eta aldizkaria goitik behera irakurtzen dut.

● **“Publizitate gehiago salduz eta soldatak igo barik, dirulaguntzen jeitsierari aurre egin diogu, baina noiz arte?...”**



# Mendiko txirrinduaren iraultza

Beñardo Kortabarria

**“Bi gurpil dituen ibilgailua, gainean doanak pedalen bidez higiarazten duena” irakur dezake entziklopedian txirrinduaren nondik norakoa ezagutu nahi duenak. Oso eguraldi txarrik ez denean, nonahi eta noiznahi ikusten dira txirrindu-zaleak. Txirrinduak orain gutxira arte errepidean izan du muga, baina mendiko txirrindua asmatu zenetik aukera berriak zabaldu dira txirrinduzaleentzat, eta txirriduzale berri asko sortu da. Ondorioz mendiko txirrinduak gainbehera zihoan txirrinduaren industria mugiarazi du eta mesede egin die hortik bizi direnei.**

## EHUN URTEKO GARAPENA

Oraindik inor ez da gauza izan txirrinduaren sorrera data zehatza finkatzeko. 1790. urtean Sevrac frantziarrak Célériféa asmatu zuen, hankeztuzatzen zen egurrezko tramankulua. Handik 26 urtera alemaniar batek frantziarraren tresnari direktzioa ezarri zion eta beraz, aurre-

rapausu galanta eman. 50 urte gehiago beharko ziren belozipedoaren asmakizunera arte; 1865, Pierre Lallement frantziarrak. Tresna berria egurrezkoa zen eta gurpil bat bestea baino askoz ere handiagoa zuen; diote-

nez, hankamotzek ez zeukaten belozipedoak erabiltzeko aukerarik izaten. Denborak aurrera egin ahala garatu zen asmakizuna, 1885. urtean katea jarri zitzaion, 1888.ean kamaradun neumatikoa, 1897. urterako

gaurko itxura hartuta zeukan eta era industrialean produzitzen hasita zeuden. Azken asmakizuna mende zaharraren agurrarekin etorri zen, kanbioak 1899. urtean. Beraz, 100 urte baino gehiago behar izan zituen txirrinduak gaurkoen antzerako itxura hartzeko.

## MENDIKO TXIRRINDUAREN IRAULTZA

Mende honetako 80. hamarkadak ekarri zuen txirrinduaren iraultza. Ordura arte ematen zuen zer asmatu ez zegoela. Aerodinamikaren eskutik etorri ziren lehen berrikuntzak: gurpil lentikularrak, materiale arinen erabilera, adarrak txirrinduaren heldulekuan.... Baina erdi-lotan zegoen industria benetan esnarazi zuena etortzeko zegoen oraindik: kanbio sinkronizatua. Guzti horiek lapikoan sartu, ondo egosi eta platerera mendiko txirrindua atera zuen Gary Fisher izeneko batek.

Asmakizun horren ondoren erabat aldatu zen txirrinduaren mundua: alde batetik errepidea utzi eta mendiko pista, baso eta barrean ibiltzeko aukera eskaintzen zuen; bestetik, merkatu berria ireki zen,



Izardia botatzeko tresna ederra da mendiko txirrindua.





## Txirrindua erosterakoan kontuan izan...

errepidearen beldur ziren askok aisialdirako erabil zeza-keten eta. Erosleen erantzuna bikaina izan zen eta gaur egun zaila da mendiko bizikletarik gabeko etxeren bat aurkitzea. Ez da ahaztu behar gainera, mendiko txirrinduak, txirrindu-egileenaz gain, konponenteen merkatua ere esnara-zi duela. Burukoak, arropak, eskularruak, oinetakoak, edari indargarriak... soinean edo bizikletan eraman daitekeen edozer dago salgai, etxe, itxura, kolore eta materiale desberdinetan. Txirrindu-egile eta saltzaileentzat mesedegarria izan da, duda barik, mendiko txirrinduaren boom-a, garbi garbi gainbehera zetorren mundua zen eta. Hor dago esate batera, Abadiñoko Zeus lantegia berriro ere lanean. Dena dela, txirrinduak berak bakarrik ezin dio aurre egin zoritxarrari edo gestio txarrari, itxi berri den Altsasuko Razasa lantegiaren kasuak erakusten duen bezala.

**B**atek daki noraino hel daitekeen mendiko bizikletaren merkatu hau, baina egunez egun ari dira gauza berriak ateratzen, eta lagungarria izango delakoan, txirrindua erosi nahiean dabilenarentzat hona hemen aholku batzuk:

■ Aurrez ondo erabakita izan zenbat gastatu, merkatua erabat zabala da zentzu horretan eta.

■ Txirrinduari begiratuta benetan garrantzia duten piezak direkzioa, balaztak eta jarlekua dira. Ondo gidatu, behar denean ondo geratu, eta txirrindu gainean eroso joateak asko balio du; beraz, hor ez izan gastatzeko beldurrik.

Koadroak ere badu bere garrantzia, materialaren arabera kilo batzuk izatetik horren erdia izatera pasa daiteke eta. Dena dela, kontuan hartu zenbat eta arinagoa bigunagoa ere badela; beraz, ondo pentsatu zeri eman lehentasuna.

Kanbioetan ez dago sekretu handirik, sailkatuta daude ez hain onetik onenera. Funtzionamenduan baino prezioan dute aldea eta erdi-mailako edozein ondo dabil.

Suspentsioa ez da beharrezkoa, baina betetzen du bere eginkizuna, aldapan behera ondo baino hobeto joaten da zuloetan sartuta ere, gainera gurpilek ez dute hainbeste sofritzen. Garestitu egiten du txi-

rinduaren prezioa, baina ahal izanez gero hobe da edukitzea ez edukitzea baino.

Pedal onenak automatikoak dira, indar berdina eginda oina bertan joaten da erosoan. Suspentsioak bezala asko garestitu dezakete txirrinduaren prezioa.

Txirrinduaren gainontzeko piezak: ez dakit ze helduleku klase, kubieta bereziak, material bereziko gurpilak... ez dira hain garrantzitsuak, eta normalenak erosi eta ez da ezer galtzen.

■ Marka batzuk, kalitate berdinean, beste batzuk baino garestiagoak dira; beraz, merkeena aukeratu. Askok garrantzia dute, eta hori ere kontuan hartzekoa da.

■ Otsaila-martxoan aldera aurkitzen dira merkeen, toki askotan beharpenak egoteaz gain, garai horretan modelo berriak sartzen dituztelako.

■ Osagaiei dagokienez, esan behar, burukoa ezinbestekoa izan barik beharrezkoa dela, heldulekuko adarrak ere bai, eta eskularruak ez direla txarto etortzen, bidoia eta pintxazoak konpontzekoak bezala.

Aipatutakoak akaso gauza larregi dira txirrindua erostera doan edozeinentzat, eta behar bada benetan pentsatu beharrezkoa zera da: erosi eta gero erabiliko ote dut?





Finalaren atarian urduritasuna nagusi.

## Nesken final handia domekan jokatuko da

Nesken txapelketa azkenera heldu da eta domekan final handia izango dugu Ferialekuko kantxan eguerdiko 12etan. Zapatuko partiduak irabazten dituzten taldeak aurrez aurre izango dira finalen. 11etako partiduak, berriz, 3. eta 4. postuak erabakiko dira.

Asteburuan jokatu zen jardunaldian Zure Atzetik tal-

deko Laura jokalaria lesionatu egin zen eta Gurutze Gorriak ospitalera eraman zuen. Lesioa dena dela, ez da oso larria.

Bestalde, Txakolintxau- nek astindu galanta eman zion Joixon Bertan taldeari 16 eta 2 irabaziz. Ez dakigu joixon Bertako neskek zer egin zuten ostiral gauean, baina emaitza ikusita gauza onik ez.

### HURRENGO PARTIDUAK

#### Finalerdiak. Zapatua

12.00 Orkatz - Las Mels

13.00 Zeppaesstandon - Txakolintxintxau

### Sailkapena

	Partidua	Alde	Kontra	Puntuak
Txakolintxintxau	9	71	13	18
Las Mels	9	68	14	16
Orkatz	9	43	22	13
Zeppaesstandon	9	48	26	13
Izenbakuak	9	38	40	8
Joixon Bertan	9	41	53	7
Ireklas	9	14	38	6
Zure Atzetik	9	11	41	5
B.G	9	9	66	1
Karpen Diem	9	8	37	-13

### EMAITZAK

Karpen Diem 2 - B.G 2  
 Orkatz 3 - Zeppaesstandon 3  
 Izenbakuak 1 - Las Mels 6  
 Ireklas 5 - Zure Atzetik 1  
 Joixon Bertan 2 - Txakolintxintxau 16  
 Joixon Bertan 6 - Izenbakuak 7  
 Zeppaesstandon 11 - Izenbakuak 2

## Uribe auzoan finalerdiak larunbatean

Finalerdiak jokatu dira Iturripe A eta Bn domekan eguerdiko 12etan. Gallinero eta Salenco y Konpañia taldeen arteko partiduko irabazleak Uglys eta Los Dimyn arteko irabazlearen kontra jokatu du. Beste partiduetako irabazleak

elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak. Finala, berriz, ekainaren 23an jokatu da arratsaldeko 7etan.

Sariei dagokienez, txapelketako irabazleak garaikurra, txapela, urdaiazpikoa, txanpan kaxa eta 50.000 pta. jasoko ditu.

### Final laurdenak

#### Zapatua • Iturripe A

11.00 Gallinero - Salenco y konpañia

12.00 Lautherbrunnen - Arrasate Kirolak

#### Zapatua • Iturripe B

11.00 Uglys Txinato - Los Dimy

12.00 Hirei - Tronkoteak

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57




Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**Hilbera**  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 22 70



LABURRAK



Udako kirola egiteko aukera paregabea izango dugu uztailean.

**San Juan XVI. Eskuz Pilota txapelketa**

San Juan XVI. Pilota Txapelketa jokatu da zapatuan Iturripeko frontoian goizeko 11etatik aurrera. Hiru neurketa izango dira guztira. Alebin A mailan Malas-Etxeberria eta Ugartetxe bikoteak Bergara II eta Urkiaren kontra neurtuko ditu indarrak. Alebin B mailan, Uribarren-Oxel bikotearen arerioak Etxeandia eta Asier Blanco izango dira. Infantiletan nor baino nor Amaia - Nafarrate eta Gurutz-Beñat izango dira. Amaia finalera iritsi den neska bakarra izan da.

**Udaran kirola izango da protagonista**

Udako Kirol kanpaina jarri du abian Aukeak. Ekainaren 27tik uztailearen 21era kirol ekintzak egiteko aukera izango dute izena ematen duten guztiak. Eskalada, espeologia eta mendizaletasun ikastaroak Besaiderekin batera egingo dira. Piraguismoa Urkuluko urtegian izango da. Ur-azpiko kirola Musakolako igerilekuan. Arku tiraketa, tenisa, aerobika, judoa, aikidoa, taichia, gimnasia erritmikoa, mantenimenduko gimnasia, 3. adinekoentzat gimnasia eta muskulazioa Musakolako kiroldegian. Parapente

ikastaroa Oñatin burutuko da Ipar Aizea taldearen eskutik.

Bestalde, erreken jeitsiera, rafting-a, hidro speed-a eta kanoa kayak ikastaroak Nafarroa eta Santander aldean egin ahal izango dira. Azken kirol ekintzetan parte hartzeko igerian jakitea nahi eta nahieko baldintza da. Ikastaroak bitxandatan banatuko dira, lehena ekainaren 27tik uztailearen 7ra eta bigarrena uztailearen 11tik uztailearen 22ra. Erantzukizun zibilaren aseguruia izango dute partaide guztiak. Izenematea egin

ondoren, ez da dirurik bueltatuko. AUKEAko bazkideek prezio guztietan 500 eta 2.000 pezeta bitarteko beharpenak izango dute aurtengo karneta aurkeztuz. Izenematea AUKEAko bulegoan edo Gazte Zerbitzuan egin daiteke, goizez 9etatik 12etara eta arratsaldez 4etatik 6etara. Izena emateko epea lehen txandan parte hartu nahi dutenek, ekainaren 17a baino lehen eta bigarren txandarako ekainaren 30a baino lehen. Egunak eta ordutegiak apuntatzen den jende kopuruaren arabera banatuko dira.

**Txirrindulari lasterketa zapatuan**

San Juan txirrindulari lasterketa Benjamin, alebin eta infantil mailean jokatu da zapatuan arratsaldeko 4etan. Ibilbidea: Garibai, Kontzezino, Cerrajera, Biteri eta Garibai.

Bestalde, Dorletako Ama taldeko 1. eta 2. urteko jubentilek Telleriarte lasterketan hartuko dute parte zapatuan arratsaldeko 4.30etan eta domekan goizeko 10.30etan Ereñon Euskadiko txapelketa izango dute jokuan. 2. urteko kadeteen topalekua Tolosa izango da arratsaldeko 5etan eta lehen urtekoek Elgoibarren izango dute zita domekan.

**UGARTE**  
 Industri hornidurak  
 Arrasate pasealekua  
 Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
 Telefax: 793412

**LORATEGI "BAR"**  
  
 Iturriotz, 7 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 04 67

Erdiko kale. 79 19 37  
  
 Ferrerías. 79 87 62



## Javier Joanes

# Abenturaren xarma diapositiben bidez


Jaiotzez salamankarra, Donostian bizi da. Jendeak abenturazaleztat dauka eta Javierrek ez dio etiketa horri uko egiten. Diputazioko ordenadoreak alde batera uzten dituen argazki kamara izaten du lagun.

— “Ekialdetik Euskal Herrira” izeneko ikus-entzuteko muntaia honetan zer ikus daiteke?

— Muntaiaren Indonesia, India, Nepal, Tibet, Yemen, Turkia, Marruecos eta Euskal Herriko bazterak erakusten ditut. Azken zazpi urte hauetan egindako bidaietan atera ditudan argazkien bilduma da. Herri bakoitzeko ohiturak eta pertsonak agertzen dira.

— Nondik ateratzen duzu denbora?

— Uda aprobetxatu izan dut bidaiak egiteko. Urtero leku desberdin bat aukeratzen genuen lagun batek eta biok oporrak pasatzeko, argazkiak ateratzen genituen eta horrela bildu ditut horrenbeste. Orain ez daukat horrelako aukerarik; ezkondata nago eta seme-alabak ditut, beraz, beste obligazio batzuk ditut. Urte batzuk barru, era honetako bidaiak egiten jarraitzea espero dut. Momentuz Euskal Herrian eta inguruetan egiten ditut.



— Ordu erdiko muntaia batean ematen du astirik zazpi urtetan ikusitakoa erakutsi ahal izateko?

— Ez. Muntaiaren bidez herrialde hauen ikuspegi bat baino ez du jasotzen ikus-entzuleak.

— Abenturazaleztat duzu zure burua?

— Bai. Nire esku balego bidaiatzen pasatuko

nuke bizitza osoa. Jendearekin harremanak edukitzea gustatzen zait; niretako hori da abentura. Oso aberasgarria iruditzen zait.

— Eta zein herrialdetan izan duzu harreman estuena?

— Zaila da hori esatea. Orokorrean ekialdekoa, agian Tibet-eko jendea aukeratuko nuke; oso

atseginak dira, irekiak, agian irekiegiak.

— Argazki kamara jendearekin harremanetan jartzeko aitzakirik onena da?

— Keinu baten bidez argazkia egiteko baimena eskatu eta ez da problema-rik izaten. Anekdota ere gertatzen dira: behin turkiar bati argazkia egiteko keinua egin nion eta itxaroteko esan zidan. Aldegin zuen eta bere familia osoarekin bueltatu zen; seme-alaba, aita, aitona-amona eta emaztearekin. Argazkia egin ondoren etxera gonbidatu gintuen. Alde egitera gindoazela, nahiz eta elkar ez ulertu, paper batean bere helbidea idatzi zigun eta argazkia bidaltzeko eskatu zidan. Bidali nion baina ez dakit helduko zitzaien.

— Beste bidaiaren bat prestatzen ari zara?

— Ez, orain Euskal Herriari buruzko muntaia prestatzen ari naiz, Gipuzkoako ohiturei buruzkoa hain zuzen. Milaka argazki egin ditut dagoeneko eta laister aurkeztuko dut.

— Argazki asko egingo zenuen. Badakizu zenbat?

— Karrete guztiak ordenadore bidez artxibatuta ditut, beraz, esateko modua daukat: 45.000.

.....  
*“Keinu baten bidez argazkia egiteko baimena eskatu eta ez da problemarik izaten”*

**ARRASATE TELEBISTA**  
**ATB Berriak: Informatiborik ikusiena**  
**Publizitatea: ☎ 77 08 15**



## LABURRAK

## "Arrasate Gure Herria" 2. edizioa


Iñigo Ramirez de Okarizek idatzitako "Arrasate Gure Herria" liburuaren bigarren edizioa kaleratu berri da. Bigarren edizio honek lehenengoaren diseinu berdina dauka baina hau, gaurkotuta dago. Arrasateko arteari eta politikari buruzko hainbat datu gehiago gehitu zaio eta.

## Bonbardino emanaldia Eskoriatzan

Ostiralean ekainak 16, bombardino emanaldia izango da entzungai Eskoriatzako San Pedro elizan gaueko 10etan. Organoa Arantza Alonsok joko du eta bombardinoa Vicente Tarreagak eta Jesus C. Urrutiak. Eskoriatzako Musika-Eskolako hiru musikari hauek gai barroko bat joko dute. Emanaldia Eskoriatzako Udaleko Kultura Batzordeak antolatu du eta sarrera dohainekoa izango da.

## Nafarroa Oinezko materiala salgai

Datorren astetik aurrera salgai izango da aurtengo Nafarroa Oinezko edizioko materiala AED elkartean. Materiala arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean erosi ahal izango da.



Edozein adineko eta tokiko pertsonak parte hartu ahal izango dute pintura lehiaketan.

## XIV. Toki ageriko Pintura Lehiaketa

**S**antamainako Gizarte eta Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak udalaren laguntzaz, XIV. Toki ageriko Pintura Lehiaketa antolatu du aurtenera. Zapatuan burutuko da lehiaketa eta San Juan jailetako egitarauaren barruan kokatuta dago.

Lehiaketan edozein adin eta tokiko margolarik parte hartu ahal izango du eta partehartzaileak goizeko 11etan bildu beharko dira Monterronen, lientzoei zigilua jartzeko. Zigilua jarri eta gero, partehartzaileak Arrasateko edozein lekutara joan eta nahi duten gaia aukeratu eta gero, 3 ordu izango dute lana

hasi eta amaitzeko. Teknika ere libreza izango da. Lientzoak arratsaldeko ordu bietan entregatu behar dira Monterronen.

Sariak egun berean banatuko dira arratsaldeko sei terdietan eta Monterronen. Saria jasotzeko derrigorrezkoa izango da sariaren jabea bertan egotea, hau da, irabazlearen saria jasotzeko ordezkorik agertuko balitz, ez litzaioke saririk emango.

Aurkeztutako lan gutzietan erakusketa egingo da hilaren 18tik 30era eta erakusketa bukatu eta gero, bere lana jaso nahi duenak, uztailaren 1etik 15era izango du horretarako aukera.

### Sariak

Antolakuntzak bederratsari sari banatuko ditu. Sariak bi mailatan egongo dira banatuta, gazte eta helduak. Helduen mailari dagokionez, lehen saria 70.000 ptakoa izango da; bigarrena 45.000koa eta 3.a 35.000koa. Maila honetan 3 sari berezi emango dira bakarrik Arrasateko bizilagunek aurkeztutako margoen artean; lehen saria 30.000 ptakoa; bigarrena 25.000koa eta hirugarrena 20.000koa.

Gazteen mailan hiru sari banatuko dira: lehena 12.000 ptakoa; bigarrena 10.000koa eta hirugarrena, herri mailakoa, 8.000koa.



## AVICOLA IRAIN



Arraultza freskoen banaketa - Arraultza pasteurizatuak - Urdaitegia



Tfnoa (943) 72 43 90 - Faxa (943) 72 43 90  
Ezkie Itsaso - Antzuola







an Juanak badatoz eta garai batekoetan herrian izaten zena gogoratuko dugu, giroa apur bat prestatu eta berotze alde-  
ra.

San Juan bigarreanean dantza antolatzen zen, eta herrián oso ezagunak ziren adineko gizonezko batzuen aurpegiak gogora ekartzen dizkigute 1952ko erretratu hauek. Aureskua, makila dantza eta antzeakoak egiten zituzten eta neskak aukeratu eta haiei egi-

ten zieten dantzan.

Goiko erretratoan, ezkerretik hasita, **Nikolas Agirreurreta**, **Margarita Barrena**, **Antonio Pagoaga**, **Gloria Agirreurreta**, **Gregorio Vitoria "Benantx"**, **Kornelio Balzategi "Erregetxo"**, **Anselmo Balanzategi** eta **Fru-tos Eraña "Kaxo"**.

Behekoan, ezkerretik esku-mara, **Kornelio Balzategi**, **Anselmo Balanzategi**, **Fru-tos Eraña "Kaxo"**, **Marga-**

**rita Barrena**, **Xeferin "Kinto"**, **Axun Ezkurra "Galarr"** eta **Agustin Agirreurreta**.

Lehenik zezena ibiltzen zen kalerik kale eta dantza plazan egiten zen, eguerdiz; eta ondoren bailableak jotzen zituen herriko bandak. Egun hartan Bixente Etxebarria, Jaime Zubilade "Torres" eta Felix Jauregi-Arraburu izan ziren.

Atzealdean ageri diren leihoak parrokiakoak dira.



# Minbizia edo kantzerra (I)

**M**inbizia da gure gizartearen bigarren heriotza eragile nagusia.

## Zer da?

Minbizia zenbait agente kantzerigenok (tabakoa, erradiazioak, birusak, agente kimikoak...) eragiten duten alterazioen ondorioz sortutako disregulazio zelularra da.

Aldaketa horrek zelula normala gaiztoa bihurtzen du. Zelula, anarkikoki hasten da zelula-masa eratuz, hau da tumorea, gertuko ehunak deusezta ditzakeelarik. Gertuko ehunak kutsatzeaz gain, urruti heda daitezke ere, zirkulazioaren bidez ehun berriak kolonizatuz (gibela, garuna...). Tumore sekundario honei deitzen diegu metastasis.


## Minbizia hereditarioa da?

Esan daiteke minbizia edo kantzerra ez dela hereditarioa nahiz eta kasu konkretu batzuetan joeraren bat egon.

Minbizi sortaile diren bi talde bereiztu behar ditugu:

1) Kanpo faktoreak, hau da inguruko faktoreak, honen artean aipagarrienak tabakoa, agente kimikoak, birusak...

2) Barne-faktoreak organismoaren berezko ezaugarrietatik eratortzen diren faktoreak: famili batzuek, tumorreak garatzeko duten erraztasuna edo joera beste batzuek



dutena baino nabarmenagoa dela.

## Minbiziaren kontrola dezakegu?

Minbiziaren kontrola eta eritasun honen eragina gutxituz joan dadin denok lan egin behar dugu. Minbizi mota gehienetan prebentzio eraginkor bakarra lehen mailakoa da: arriskua mugatzea. Horretarako ez erretzea, garbi jatea, eta abar. behar beharrezkoa da. Izan ere, minbizi lau kasutik batean, gutxienez, beti du tabakoak zer ikusirik eta beste batean janariak edo jateko ohiturak.

Neurri hauek minbizi mota guztietarako baliogarriak dira

baina batez ere birika, laringe eta hesteetako kantzererako.

Bigarren mailako prebentzioa, hau da, txekoa edo Skreehig egitea, minbizi mota batzuetan oso baliogarria da, batez ere arrisku taldeetara zuzenduaz gero.

Emakumezkoengan, bularreko minbizia da nagusi eta diagnostiko goiztiarrrak duen garrantziaz ohartu behar da.

Hirugarren mailako prebentzioan, minbiziaren tratamenduan aurrerapen handiak egon dira azken urte hauetan. Azkenaldian laborategian kromosoma eta geneen gaineko ikerketetan, bularreko minbizi

mota berezi baten genearen aurkikuntza egin da. Alterazioa aurkitu eta gero, ingeneritza bidezko soluzioa da onena, alterazioa bera aldatuz eta ondo jarritz.

Tratamendu hau ez dago oraindik eskuratzetik eta bitartean denok ezagutzen ditugun tratamenduekin jarraituko dugu, hau da, zirujia, erradioterapia eta kimioterapiarekin.

Bukatzeko, esan garrantzi handia duela gaisoaren inguruak, gure laguntza behar dute eta ezin diegu ukatu.

**EUGENIO ITURRIOTZ.**  
MEDIKUA

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABAETA**



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



# Z E R N A H I A G O ?

## Esti Loiti "Titu" Mondrako nesken futbol taldeko partaidea



- Zergatik daukazu neska futbolari gehienek ile motza? Traba egiten digulako.
- Nora zoaz oporretan? Ez dakit baina penintsulan bertan geratuko naiz.
- Aktoresa bat? Woopy Goldberg.
- Zein futbolariarekin hartuko zenuke kafetxo bat? Stoichkov-ekin.
- Eta bera zure etxera afaltzera joango balitz, zer prestatuko zenioke? Janari italiarra, denei gustatzen zaie.
- Nori jarriko zenioke txartel gorria? Politiko guztiei.
- Entrenamendua eta gero gogor afaltzen duzu? Bai... Belun-en bokata eder bat.
- Zer falta zaio Arrasateko nesken futbol taldeari? Dirua eta jendearen bultzada; afizioa.
- Dantzatze trikitixa ala bakalaua? Trikitixa.
- Zapatila marka bat? Nike.
- Entrenatzaile bat? Cruyff.
- Zenbat gol sartu dituzu? Aurten bat bakarrik.
- Maiteminduta zaude? Ez.
- Ze gauza on izan behar du mutil batek zure gustokoa izateko? Askó, horregatik nago bikote barik.
- Arrasatearrek diru asko gastatzen dute kirol erropetan? Bai.
- Agujetak kentzeko, zer? Hurrengo egunean kirol gehiago egitea.
- "El día después" ala "Kirolez Kirol"? "El día después", duda barik.
- Edari gustokoena? Garagardoa.
- Barruko erropa txuria ala beltza? Txuria.
- Oso urduria ei zara, beti mugitzen... Bai, egia da, familiarik dator kit urduritasuna.
- Zer ez zenuke sekula jantziko? Takoidun zapata batzuk.

## LABURRAK

### Kartel lehiaketa

Aretxabaletako Udaleko Kultura batzordeak Andra Mari jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Aretxabaletako edozein pertsonak har dezake parte eta teknika librean izango da.

Kartelen neurriak 50x70 zentimetrokoak izan behar dute eta testu hau izan behar du: "Andra Mari Jaiak 95/Abuztuak 14, 15, 16 eta 17 Aretxabaleta".

Kartelak ekainaren 22a baino lehen Aretxabaletako Kultur Etxera bidali behar dira eta erabakia ekainaren 29an emango da jakitera.

Sariak 25.000, 10.000 eta 5.000 ptakoak izango dira.

### III. Kirol Jaia

Deba Garaiko Mankomunitateak "Denontzako III. Kirol Jaia" antolatu du zapatutarako Bergarako Labegaraierako kiroldegian. Arratsaldeko 4etatik 6ak arte, golf-a, slalom-a, arku tiraketa, parakaidas-a eta sokatira izango dira besteak beste. Jaialdiaren amaieran opari banaketa eta luntxa egingo da.

### DEBA GARAIKO LANGILEAK BEHAR DIRA:

Peoi industrialak, maisu industrialak-FPII, Administrazio laguntzailea (ingeles eta frantses edo alemaniarekin), xtoferrak, CAD-CAM delinenteak, pintoreak ( pistola, txaplata) eta hurrengo sailetan esperientzia duten 1. eta 2. mailako ofizialak eta langile espezializatuak:

- Prentsa, muntaia, bizarra.
- Mekanika, elektronika.
- Kontrol numerikoa.
- Hotzetako estanzak.
- Soldadura ( MG, MIG, gasgarra, aluminioa, kobrea).

Curriculum eta nortasun agiri neurriko argazkia bidali Donostiako 1.846 / 20.006 posta kutxatilara, kartazalean lanpostuaren izena eta bizilekua adieraziz.



Atzerrian izandako udako abenturetan, batzuetan mutu gelditu zara...



**UZTAILA**

Ez dakizun berriz gertatu,

**Egunean 2 ordu**

**ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA**

**Ikas ezazu**

**UDAKO IKASTARROAK**

Araba Etorbidea, 4 Tfnoa: 943/ 79 01 32 79 65 54 - ARRASATE Olakua, 14 - Tfnoa: 71 60 00 - OÑATI



# UDAL EUSKALTEGIA

## Urratsez urrats eta guztion beharrei erantzunez

### 1.-Zein izan da Euskaltegiaren azken urte-etako bilakaera?

Euskaltegia sortu zenetik, 1981eko irailetik, gaur egunera arte jorratu dugun bidea luzea bezain emankorra izan da. 81ean 3 irakaslerekin hasi ginen; 94-95 ikasturtean 15 izan gara eta hasiera hartan zeuden 45 ikasleak gaur egun 500 dira.

Euskaltegia indartu egin da, besteak beste, Arrasaten euskararen aldeko mugimenduak aurrera egin duen neurrian. Herri-ekimenaren bultzada eta administrazioaren (Udala, HABE,...) borondate politikoaren uztarketa erabakiorrak izan dira gure bilakaeran.

### 2.-Zeintzu dira udal euskaltegiak dituen ezugarriak?

Beste euskaltegietatik nabarmen bereizten gaituen definizio mailako ezaugarriekin hasiko naitaizu: publikotasuna. Arrasateko Udal Euskaltegian edonork du ikasteko aukera eta eskubidea. Matrikula ordaindu beharra baldin badago ere, bai ezarriak dituen beken sistemez edo baita beste bide batzuez ere baliatuz, edoizen herritarrek du euskara ikasteko aukera erarik duinenean.

Maila pedagogikoan ikasle bakoitza dugu helburu eta horretarako sistema osoa eratu dugu irakasuntza, ikasle bakoitzaren beharretara egokitua izan dadin.

Bestalde, HABErekin lan-kidetzan aritzen gara eta erakundeak markatutako norabideekin lotura estua daukagu.



Honek esan nahi du, planteamendu pedagogikoetan, programen egituraketan eta helburuetan HABEren babes osoa daukagula.

### 3.-Zein esparrutan ari zarete lanean?

Azken urteotako bilakaera ikusita gure esparrua zabaltera jo dugula esan behar da. Batetik, eguneroko bizitzan aurkezten zaien edozein egoeratan edota egoera zehatzetan euskaraz ari nahi dutenak daude; gurasoak edo ohiko ikasleak kasu.

Bestalde, helburu zehatz batek bultzaturik ikasten duen jendea dago; euren lanean euskara maila bat eskatu dietelako edo beraien lana hobeto burutzeko euskara maila jasoagoa eskuratu nahi dutelako; multzo honetan administrazioa, enpresak, irakasleak, gaztetxoak... sartuko genituzke.

Begi bistan dago beraz,

esparru ezberdinak jorratzen ari garela eta gero eta gehiago ikus daiteke jendeak ikasi nahi duela baina motibazio ezberdinak mugitzen dituela; bakoitzaren helburua ezberdina baita.

Arrasaten euskarak eremu guztietan hartu duen protagonismoa garrantzitsua izanik, geu ere zerbitzua ahalik eta modu egokienean eta dibertsifikatuenean ematera behartuta gaude.

### 4.-Ikasturte berriari begira zein egitasmo duzue?

Datorren ikasturtean aurreko urteetan bezala, demanda oso zabala eta anitza izango delakoan gaude; hor dauzkagu enpresak, eskolak, gurasoak... Guzti hauei gure zerbitzurik onena eskeini nahi diegu. Honetarako, kontuan izan behar da bakoitzak berari espreski zuzendutako eskolak behar dituela, jakina honek

dakarren jarraipen, ebaluazio eta programazioarekin, oso garrantzitsua baita bakoitzari dagokion tratamendua ematea.

Eremu guzti hauen nahia-ri behar bezala erantzuteko kalitatea eskeini behar da eta hori lortuko dugulakoan gaude.

Bestalde, aurtengo ikasturtean frogatu dugun metodo berri bat ere eskeini nahi dugu "Benetan" izenekoa. Informatikan oinarritutako metodo hau gure eskoletan txertatuaz guk erabiltzen dugun metodoaren osagarri izan daitekeela ikusi dugu. "Benetan" gramatika akatsak zuzentzeko oso egokia da eta irakaslearen lanaren lagungarri gertatzen da, pertsonalizatua baita. Honez gain, gure inguruan alfabetatzearen garrantzia ikusirik, gogor ekingo diogu iraileko kanpainan. Halaber, enpresek eta eskolek egin dizkiguten eskaerei erantzutea ere gure helburuen artean dago.




• ESAERA •

“Errezagoa da  
legea ezartzea  
betetzea baino”

NAPOLEON

• JEROGLIFIKOA •



Loreak edukitzeko ontzia.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10				11			
12			13			14	
	15				16		
17			18	19			20
21							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Gaua hasten den aldia. 9. Kafea hartzeko etxe berezia. 10. Nafarroako udalerria. 11. (Ald.) Gatz gutxi duena. 12. Biblian, Jakoben emaztea. 14. Eguzkiaren jainko egiptarra. 15. Joan den urtean. 16. Bi, erromatar era. 17. ASTOaren kontsonantean. 18. Lurrean sortutako beheragune sakona. 21. Erraz sumintzen dena.

**Bertikalak** 1. Balzategi, Mondrako aurrelaria. 2. Baretu, trankildu. 3. Ufa eginez. 4. Neona. 5. Zati. 6. Balio Erantsiaren Zerga. 7. Age-rian dagoena. 8. Letoniako hiriburua. 13. Erleek egiten duten janari gozoa. 16. (Ald.) Atzikia, zaletasuna adierazle. 17. Gipuzkoako ibilgailuetan. 19. Radona. 20. Sexu maskulinoa duen animalia.

• HOROSKOPOA •

- Aries** Janari afrodisiakoak jatea gustatzen zaizu. Kontuz gehiegikeriekin!
- Taurus** Eskarmentu bat merezi duzu.
- Gemini** Egin duzunak ez du barkamenik.
- Cancer** Nora joango zara oportetan?
- Leo** Nekazalturismoa berriro ez, mesedez.
- Virgo** Oso kontserbadorea zara. Zein mendetan bizi zara?
- Libra** Hegazkinez ibiltzeak beldurra ematen badizu, astoa erosi..
- Scorpio** Herri honetan badago makina bat paraje eder. Dena ez da grisa.
- Sagitarium** Neska puska galanta eginda zaude. Jarraitu horrela.
- Capricorn** Horrela jarraitzen baduzu Fernando Amezketarra txiki utziko duzu.
- Aquarius** Tabakoa erretzeko ohitura alde batera utzi behar duzu.
- Piscis** Igandean belarritakoa galduko zaizu eta astelehenean aldizkari honetara deitu beharko duzu.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*


**Doktoreak:** CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**



• TELEBISTAREN TXOKOA •



# ATBketan bidaia jokuan

**D**atorren asteartean ATBketan lehia-ketako azken programa ikusi ahal izango da. Programa horretan bidaia bat egongo da jokuan, Ecuador bidaia agentziak ematen duena hain zuzen. Urtzi eta Aimar eta Amaia eta Eneritz izango dira

aurrez aurre datorren asteartean. Jakin bada-kigu Amaia eta Eneritzek 60 punturekin irabazi zutela joan den astean eta Urtzi eta Aimarrek 55ekin. Nork eramango duen bidaia? Asteartean, gaueko 9.30etan argituko da hori!

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



**19 astelehena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
 21.30etan  
**Mondrasport**

**20 Asteartea**

13.30etan  
**Mondrasport (errep.)**  
 20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
 21.30etan  
 ATBketan "Finala"

**21 Asteazkena**

13.30etan  
**ATBketan (errep.)**  
 20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
 21.30etan  
**Pareak Jokuan**

**22 Osteguna**

13.30etan  
**Pareak Jokuan (errep.)**  
 20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
 21.30etan  
**Trebelanak**

**23 Ostirala**

13.30etan  
**Trebelanak (errep.)**  
 19.50etan  
**Kukaratxa Motel**  
 20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
 21.30etan  
**Astebete "San Juanak 95"**  
 22.00etan  
**Marrazki Bizidunak**

• SOLUZIOAK •

**Horizontalak:** 1. Ilunabar, 9. Kafel, 10. Esa, 11. Azeq, 12. Rakel, 14. Ra, 15. Iaz, 16. II, 17. ST, 18. Troka, 21. Suminkor.  
**Bertikalak:** 1. Iker, 2. Lasaitu, 3. Urtaka, 4. Ne, 5. Aial, 6. BEZ, 7. Age-riko, 8. Riga, 13. Ezti, 16. Iok, 17. SS, 19. Rn, 20. Ar.  
 Pegarra.

**TXOKO**  
**TABERNA**  
 Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

**HIES EKIMENA**  
 Astelehen, astearte eta ostiral  
 5etatik 8etara.  
 Tfnoa: 79 26 99



**Etxebizitzak**

- **Garaje itxia salgai.** 20 m<sup>2</sup>. Urbarri etorbidean. Pal ferreteriaren azpian. Tfnoa: 79 54 03.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 30 72.
- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73
- **70m<sup>2</sup>ko lonja alokatzen da.** Ura eta argia ditu. 40.000 pta.
- **Arrasaten lau edo bost** lagunendako pisua alokatzen da. Tfnoak: 77 03 38 edo 79 18 03.
- **Pisu baten bila nabil** baita pisu hori konpartitzeko lagun baten bila ere, berdin da Arrasateko zein tokitan. Tfnoa: (945) 26 66 35 gaueko 8etatik 9.30etara.
- **Lokal merke bat behar** da alokairuan musika jo eta eskulanak egiteko. Tfnoa: 79 65 31.
- **Garaje itxia alokatzen da** Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.

**Lana**

- **Neska pres** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 71 48 50.
- **Emakume euskalduna** etxeak garbitu eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Dei egin arratsaldeko 4ak arte 79 77 94 tfnora.
- **Informatika, ingineritza edo enpresa** zientzietan lizentziatua behar da. Tfnoa: 79 42 78.
- **Pertsona nagusiak** zaintzeko esperientziadun andra prest. Dei egin arratsaldez edo asteburuetan 77 04 60 tfnora. Margari.

- **Kontabilitateko klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 71 05.
- **Andra erizain auxiliarra** eta geriatrian esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko. prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Fisikako irakasle bat behar da.** Deitu 79 86 69 tfnora. Ana.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Uztailean zehar OHOKo klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 77 04 98.
- **Gizartelan ikasketak** egiten ari den neska euskalduna eta langilea prest abuztuan lan egiteko. Tfnoa: 76 64 60. Alaitz.
- **Mate, fisika eta kimikako klaseak** ematen dira uztaile eta abuztuan. Tfnoa: 79 73 82
- **Uztailean eta abuztuan** Arrasaten aldean lan egingo nuke taberna edo kafetegietan. Dei egin ostiral iluntzetan edo larunbatetan 18 03 78tfnora.
- **Uztailean eta abuztuan** EGB, BUP eta kontabilitatea eta estatistikako klase partikularrak ematen ditu neska esperientziadunak. Tfnoa: 77 04 82. Amparo.
- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Neska prest uztaileko arratsaldetan** taberna baten lan egiteko. Tfnoa: 78 16 88. Izazkun.

**Salerosketak**

- **Kotxea amildegitik behera,** soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnoa: 79 76 92. Juanito
- **Siberian Husky arrazako txakurkumeak** salgai. Tfnoa: 79 09 54.

- **Kotxea salgai.** Opel Corsa Swing. SS-U. Oso goera onean. Dei egin: 77 02 81.
- **Sukaldeko altzariak salgai,** sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jan-gelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauen 79 01 66 tfnora. Arantzazu.
- **Collie kumeak salgai.** Dei 79 08 98 tfnora.
- **Cady markako motor beltza salgai.** Asegurua dauka iraila arte. 30.000 ptatan. Tfnoa: 77 09 36.
- **ONDA 200 Trail erakoa** saltzen dut. 180.000 pta. Kaskoa oparitzen da. Tfnoa: 79 69 66.
- **Kanpinerako karro-denda salgai.** Tfnoa: 76 37 82.
- **Vespa 200 beltza SS-W salgai.** Tfnoa: 79 46 98.
- **Bi ohedun altzari tolesgarria** oparitzen dut. Neurriak: 2.15 x 2.60. Tfnoa: 77 01 27 / 79 13 26
- **Lau lagunendako ia berria** Artiach markako kanping denda salgai. Evasion modelokoa. 8.000 pta. Tfnoa: 79 95 83.

**Denetarik**

- **Joan den larunbateko SFX-eko** abesbatzen topaketetan klabeek betetako xaxa bat desagertu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfno: 79 64 79.
- **Musika talde bat,** beste talde batzuen bila dabil lokal akondizionatu bat konpartitzeko. Tfno: 799134. Miguel.
- **Santamainako pasealekuan** urrezko eratzuna aurkitu nuen. Inizialak ditu. Galdu duenak dei egin dezala 79 04 49 tfnora.
- **Ezkontza eta beste edozelako ospakizuntan** behar den "tonua" emateko Goikobalu Abesbatza pres duzu. Tfnoa: 79 15 27. Rakel.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Ikasketa Fiskalen Institutuak deituta, Ogasun Publikoaren aurrekontu ekintza fiskalen inguruko arloetan pertsonal ikertzaileak hezitzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduta. Epea: ekainak 30.
- "AIEK (Artista, interpretari edo egileak)" 95-96 ikasturterako honako deialdia egiten du. Musikarako ikasketen zabaltze eta sakontze 100 beka eta Goi espezializazioko 10 beka, Espainian nahiz atzerrian, musika irakaskuntza zentru ez ofizialetan.

Musika ikasleei zuzenduta. Epea: ekainak 30.

**Lana**

- Tolosako Udalak, erdi mailako teknikari lanpostu bi kaleratu ditu. Epea: ekainak 21.
- Ormaiztegiako udalak, bi lanpostu betetzeko deia egin du. Erdi mailako teknikari bat, eta Kultur Sustatzaile bat. Epea: ekainak 21.
- Errenderiko udalak, lanpostu hauen deialdia egin du. Sukaldari laguntzaile bat, arkitekto bat, administrari hiru, administrari

laguntzaile bat, informatika laguntzaile bat. Epea: ekainak 21.

**95 arrisku soldata programa**


- Arrasateko udalak deituta, enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa dutenei zuzentzen da programa hau. Negozioaren bidegarritasuna aztertze laguntza eskaintzen da. Epea: uztailak 28.

**Kirolak eta abentura (Diputazioa)**

- 18-29 urte bitartekoei zuzendutako oporraldi egitarau ezberdinak: ibilaldi kulturalak, urretako ekintzak, ibilaldiak oinez... Plaza mugatuak. Izene-matea, Gazte Bulegoan.

**"Hogeigarren urtera ari naiz hurbiltzen eta nere oinetan tonba dut ikusten ni zertako mundura etorria nintzen? Ondikoz ez sortzea neretzat hobe zen"**

**"LORE SORTU ORDUKO" MIKEL LABOA**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



Elektragailuetan marka guztiak • Armairu enpotratuak, ate korrigarriekin



**5 urteko  
garantiaz**

Zuk behar duzun sukaldea egin dezakegu!!


**Berango**



Sukalde altzariak

Legarre Pabiloia, z/g  
Gipuzkoa Etorbidea  
Tfnoa: 79 01 92

*Maskarada antzerki taldeak aurkezturik:*



**Ernesto  
izatearen  
garrantzia**

(Oscar Wilde)

*Amaia Antzokia  
Ekainak 16, ostirala  
Gaueko 10.30etan  
Sarrera: 700 pta.  
(Gazte Txartelarekin: 500)*



Arrasateko Udala  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Super opor  
batzuk izan  
ditzazun  
IKER-ek...



...eskaintzen  
dizu  
hurrengo  
modeloetan:



Onda



Acqua



Fila



Nalia



Oxford



Savoy

## SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

## BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42